



13

Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!


1

La Txama musika-taldea


Maiz ikusiko duzu La Txama musika-taldea hainbat herritako festetako egitarauetan, izan ere, Bolo-bolo dabil azken bolada honetan.

Saltzaileen artean, edozein objektu beren mesedetan trukatzeko erabiltzen den teknika edo trikimailuari esaten zaio 'la txama', eta horrela sortu zen musika proiektu hau, taldeko kideen arteko aldaketa artistikoan oinarriturik.

Taldearen helburua edertasuna aurkitzeko modua bilatzea da, zaharraren eta berriaren arteko loturaren bidez. Merkatari hutsak baino gehiago, istorioen kontatzaileak dira, ahaztutako objektuen arkeologoak eta gaur egungo musikan eraldaketa egiteko grina dutenak. Euskaraz eta gaztelaniaz sortzen ditu abestiak.



2 Frantziako Tourra, euskaraz



Uztaileko bidelagun izan dute askok Frantziako Tourra. Bada, Euskaltzaindiak lexiko bat osatu du txirrindularitzarekin litra duten sarrera batzuk ahutatuta:


- Aitzinetapa: itzuli handi bateko hasiera-etapa, eskuarki motza eta erlojupekoa, lehen sailkapena egiteko antolatzen dena.
- Kronoigoera: aldapan gora egiten den erlojupekoa.
- Pedalkada: pedalarari eragiten zaion aldietako bakoitza.
- Txakalaldia: bat-bateko ahulaldia, gehiegizko ahaleginaren ondorioz odolean glukosa jaisteak eragina izaten dena.

Ikusi bideoa [hemen](#)



Euskara pantailetan

36. Irudia- Telebistako edukiak euskaraz ikusteko maiztasuna.



Ikusker-ek Hego Euskal Herrian egindako ikerketak datu kezkarriak eman ditu euskarazko edukien kontsumoaren inguruan (unibetsitarien artean):

- Plataforma digitaletan % 1ak ikusten ditu edukiak euskaraz
- Primeran ikusten du % 1ak
- % 41,7ak ez du euskaraz inoiz ezer ikusten

4

Baztandarren biltzarra

Baztandarren Biltzarra baztandarren arteko senidetasun jai handia da. Aurten, uztailaren 21ean ospatu da Elizondon.

1963an hasi zen egiten eta Baztan osatzen duten 15 herriei eskatzen zaie orga edo karroza apaindu batean Baztango ohitura eta izaeraren adierazgarri diren gaiak Elizondora eramateko.

Dantza-talde mordoak bildu da aurtengoan ere eta hamaika txokotako dantzak ezagutu ahal izan dituzte bertaratutakoek.





Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus